

2020ko maiatza



2022KO PARTE-HARTZE
IZAERAKO AURREKONTUAK

2022 PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2022

Justifikatzeko txostena I. FASEA

Sarrera

Getxoko Udalak abian jarri du 2022 ekitaldirako aurrekontu parte hartzaileen prozesu berri bat.

Prozesua **2022ko otsailaren 25etik martxoaren 14ra bitartean** egin da. Horretan parte hartu ahal zuen:

1. Getxon erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein herritar.
2. Getxoko Udaleko erakundeen erregistroan izena emanda duen edozein erakunde.
3. Helbide soziala edo establezimendu iraunkorra Getxon daukan edozein elkarte, fundazio, sindikatu, enpresen elkarte, profesionalen

elkargo, zuzenbide publikoko korporazio edota bestelako erakunde, baldin eta nortasun juridikoa esleitu bazaie, antolamendu juridikoarekin bat etorritz.

Bertan parte hartzeko honako **bide** hauek jarri dira eskuragarri:

- ✓ Webgunearen bidez: www.getxo.eus/participa
- ✓ Hautesontziak Fadurako eta Gobelako kiroldegietan, Algortako (Torrene) eta Areetako (Ogoño) herritarren arretarako bulegoetan, Algortako Kultura Aretoan (Villamonte), Romo Kultur Etxean eta San Nikolaseko liburutegian.
- ✓ Galdetegia bidalita, eskaneaturik edo argazkia aterata, hona: gobernuirekia@getxo.eus
- ✓ Postontziak jarri dira Algorta, Areta eta Bidezabal metroko geltokien eta Andra Mari kiroldegiaren inguruetan.

Proposamenek honako jarraibide hauek bete behar zituzten:

- 1 .- Udal-eskumenekoa izatea edo oreka bermatzea
- 2 .- Udalerrri osorako interes orokorrekoa izatea
- 3 .- 2022ko aurrekontu-ekitaldian soilik finantzatzea
- 4 .- Denbora egokian egin ahal izatea
- 5 .- Baliabide tekniko, juridiko, ekonomiko eta giza baliabideei dagokienez iraunkorra izatea
- 6 .- Proposamenak ez direla gauzatzen ari edo dagoeneko onartuta edo hasita dauden beste programa, proiektu edo prozesu parte-hartzaile batzuen bidez gauzatzen ari ez direla
- 7 .- Legez kanpoko edukirik, eduki difamatzailerik edo eduki diskriminatzailezik ez izatea

Proposamenak jaso ondoren, haien edukiaren arabera, udal-zerbitzu teknikoei helarazi zitzaizkien, eta haien aztertutako zuten herritarrek aurkeztutako proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Jarraibideetan jasotako eta lehen azaldutako baldintza guztiak betetzen zituzten proposamenak "proiektutzat" hartu ziren.

Getxoko Udalak hautatutako programen behin betiko zerrenda ezagutaraziko du, eta horiei Getxoko herritarrek lehentasuna emango

diete bigarren fase batean.

Behin proiektua amaitutakoan, herritarrei itzultzeko txosten bat egingo da, eta bertan justifikatuko dira hartutako proposamenak eta erabakiak.

Parte hartzearen datuak:

Jarraian lehen faseko prozesuari lotutako parte hartzea aztertu da:

Guztira, **644 galdetegi** jaso dira. Horietatik, 332 paperean aurkeztu dira (228 postontzietan eta 104 hautetsontzietan). 312 online jaso dira (20 posta elektronikoen bidez eta 292 udalaren web-orriko inprimakian bete dira)

| | | |
|----------------|-----|-------|
| Papera | 332 | 52 % |
| On line | 312 | 48 % |
| Guztira | 644 | 100 % |

Aurten, online parte-hartzea ia berdina da "aurrez aurreko" parte-hartzearekin, hau da, inprimakia hautetsontzietan edo postontzietan uztera fisikoki joan behar duten pertsonen parte-hartzearekin.

Paperean emandako formularioak honela banatu dira: **124** Algortako postontzian; **54** Areetako postontzian; **35** Bidezabalen eta **15** Andra Marin. Hautetsontzietan: **7** Villamonten, **4** San Nikolasen, **14** Faduran, **18** Gobelan, **20** Areetako HABn, **20** Algortako (Torrene) HABn eta **21** Romo Kultur Etxean.

| | | |
|------------------------------------|-----|------|
| Algortako postontzia | 124 | 37 % |
| Areetako postontzia | 54 | 16 % |
| Bidezabaleko postontzia | 35 | 11 % |
| RKE hautetsontzia | 21 | 6 % |
| Torreneko HAB hautetsontzia | 20 | 6 % |

| | | |
|---------------------------------------|-----|-------|
| Areetako HAB hautetsontzia | 20 | 6 % |
| Gobelako hautetsontzia | 18 | 5 % |
| Andra Mariko postontzia | 15 | 4 % |
| Fadurako postontzia | 14 | 4 % |
| Villamonteko postontzia | 7 | 2 % |
| San Nikolaseko postontzia | 4 | 1 % |
| Guztira | 332 | 100 % |

Online jasotako formularioak honela banatu ziren: 292 webguneko inprimakiaren bidez eta 20 liburuxketan argitaratutako posta elektronikoen bidez.

| | | |
|-----------------------------|-----|-------|
| Webgunea | 292 | 94 % |
| Helbide elektronikoa | 20 | 6 % |
| Guztira | 312 | 100 % |
| | | |

Prozesuan parte hartu dutenek emandako datuak (NAN, izen-abizenak eta adina) egiaztatu ondoren, 29 inprimaki eta horietan jasotako proposamenak baztertu dira, arrazoi hauengatik:

- inprimaki bat baino gehiago bidaltzeagatik
- ez identifikatzeagatik edo datu okerrak emateagatik
- udalerrian erroldatuta ez egoteagatik

Beraz, **615 dira baliozko formularioak** eta **966 baliozko ekarpenak** (formulario bakoitzeko proposamen bat baino gehiago egin baitaitezke).

Parte-hartzaileen adinari dagokionez, honela geratu da parte-hartzea:

- 16 eta 25 urte bitartean: 16
- 26 eta 35 urte bitartean: 85
- 36 eta 45 urte bitartean: 103
- 46 eta 55 urte bitartean: 104

- 56 eta 65 urte bitartean: 103
- 65 urtetik gorakoak: 202
- 2 erakunde edo elkarte

Ekarpenak eta proposamenak:

Guztira: 966 EKARPEN

Ekarpen horiek honela sailkatu dira, dagokien udal alorraren arabera:

| Arloa | Proposamen kopurua, guztira |
|-------------------------|--------------------------------|
| Kultur Etxea | 14 |
| Gizarte-kohesioa | 103 |
| Zahartze aktiboa | 6 |
| Euskara | 3 |
| Getxo Kirolak | 51 |

| | |
|--------------------------------------|-----|
| Gobernu irekia - Komunikazioa | 8 |
| Gobernu irekia - Informatika | 2 |
| Berdintasuna | 5 |
| Azpiegiturak | 590 |
| Gazteria | 9 |
| Ingurumena | 57 |

| | |
|--|------------|
| Ezein arlori atxikita ez daudenak | 10 |
| Ondarea eta etxebizitza | 15 |
| Hirigintza plangintza | 41 |
| Ekonomia Sustapena | 7 |
| Udal Egoitza | 1 |
| Herritarren segurtasuna | 39 |
| Turismoa | 3 |
| Esku-hartzea | 2 |
| GUZTIRA | 966 |

Proiektuak hautatzea

Emaitzak aztertu ondoren, ekarpenak eta proposamenak udal-arlo arduradunei bidali zitzaizkien, proposamen horiek bideragarritasunari dagokionez azter zitzaten eta herritarrek 2022ko aurrekontu parte-hartzaileen esparruan proiektuak lehenesteko bigarren fasera pasa zitezten.

Emaitzak aztertu ondoren, proposamenak udal-arlo arduradunei bidali zitzaizkien, bigarren fasera igarotzeko bideragarritasunari dagokionez ezarritako jarraibideak kontuan hartuta azter zitzaten.

Arlo tekniko bakoitzak jasotako proposamenak aztertu zituen eta, besteak beste, interes orokorrekoak ez direlako edo urtebetean finantzatzen ez direlako, haien garapena aztertzen ari direnak ezetsi ziren.

Honako hauek dira proiektuak:

| PROPOSAMENA | Ekarpen kopurua | AURREIKUSITAKO KOSTUA |
|--|------------------------|------------------------------|
| Parke bat estaltzea | 66 | 425.000 € |
| Berraktibazio soziokulturalerako programa berezia | 5 | 250.000 € |
| Gabriel Ramos Urangako parkea eta bidezidorrak hobetzea | 1 | 125.000€ |
| Kostaldeko pasealekuak hobetzea | 2 | 250.000€ |
| Fadurako trinketea margotu eta egokitzea | 1 | 20.000€ |
| Wifi sarbidea udalerriko hainbat puntutan | 1 | 20.000€ |
| Feminismoaren aldeko kontzientzia eta ekintzak sustatzea | 1 | 12.000€ |
| Udalerriko bide publikoen inbentarioa egin eta argitaratzea | 3 | 5.000€ |